



2008KO URRIAREN 30EKO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta zortziko urriaren hogeita hamarrean, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albisu Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Felix Urkola Iriarte, Amagoia Naldaiz Mingo, Xanet Barreras Jauregi, M^a Lourdes Garmendia Guerra, Xabier Arrasate Aierbe, Inazio Estensoro Eskisabel, Inazio Barandiaran Aldasoro, Juan Manuel Serna Portugal, Ángel Hernández Marzal, Ricardo Crespo Rubio, Iñaki Saldaña Herrero eta Javier Moreno González de Lara.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2008ko irailaren 25ean egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du gauzak gertatu diren bezala mozio bat pres-tatzeko denborarik ez dutela izan baina ez duela utzi nahi esan gabe gaur goizean izan di-ren zauritutakoekin elkartasun adierazpena azaldu eta atentatuaren gaitzespena egin nahi dutela.

Alkateak esaten du bere alderdia ere ados dagoela eta gaitzespen hori bere egiten dutela.

Jendartetik hitza eskatu eta alkateak baimendu ondoren, Igortz Badiolak esaten du beste behin ere aktaren historia errepikatuko duela, hau da, beraien interbentzioak herri-tar soilenak balira bezala jasotzen jarraitzen dela eta beraiek ezker abertzalea gisa hitze-giten dutela.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzako Ebazpe-nen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- ARERIA ERAIKINA ERAIKUNTZAREN 20. OBRA EGIAZTAGIRIA.-

Areria eraikin sozio-kulturalaren eraikuntza lanen obra zuzendaritza daraman Jose Manuel Elizegi Sarobe arkitektoak lanen hogeigarren egiaztagiria luzatu du. Hogeigarren egiaztagiri honen zenbatekoa EHUN ETA BERROGEITA HEMEZORTZI MILA BERREHUN

...///...

ETA HOGEITA ZAZPI EURO eta LAUROGEITA ZENTIMOtakoa (158.227,82 €) da. Lan hau-
ek ARERIA Aldi Baterako Enpresa Elkartea ari da burutzen.

Udal teknikariak zertifikazioa aztertu eta bere oniritzia eman dio.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du betiko galdera egingo duela, hau da, ea des-
biderapenik egon den.

Alkateak erantzuten dio likidazioa oraindik ez dela egin, baina aurten egingo dela
eta obraren ordainketa osoa aurtengo aurrekontutik egingo dela.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, aho batez, Azeria eraikin sozio-kulturalaren erai-
kuntza lanen hogeigarren obra egiaztagiria onartzea erabakitzen du.

IV.- A.I.U. 9KO (HAURTZAINDEGIA) XEHETASUN AZTERKETA.-

Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 9. Hirigintza Jarduketa Areako -Hurtzain-
degia San Prudentzio Ikastetxearen ondoan- Xehetasun Azterketari 2008ko irailaren 11ko
Alkatetzaren Ebazpen bidez eman zitzaion hasierako onarpena. Xehetasun Azterketa hau
Udalak berak sustatu du eta udal arkitekto aholkulariek idatzitakoa da.

Xehetasun Azterketa hau jendaurrean hogeit eguneko denboraldian eduki da eta
epe horretan ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu.

Hau honela, Osoko Bilkurak, aho batez, Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 9.
Hirigintza Jarduketa Areako -Hurtzaindegia San Prudentzio Ikastetxearen ondoan- Xehet-
tasun Azterketa hau behin betikoz onartzea erabakitzen du.

V.- LANPOSTUEN BALORAKETA.-

Udal Osoko Bilkurak, 2008ko uztailaren 24an egindako bilkuran, Consultores de
Gestión Pública, S.L. enpresaren aholkularitzarekin egindako lanpostuen baloraketari ha-
sierako onarpena eman zion.

Alkateak esaten du hasierako onarpen honen aurrean hainbat alegazio egon direla,
eta alegazio hauek aztertu eta Consultores de Gestión Pública, S.L. egindako txosten tek-
nikoaren ondoren baloraketa hasieran onartutako bere horretan uztea planteatzen dela.
Gaineratzen du planteamendu hau interesatuei beraiei jakinarazi zaiela. Esaten du baita
ere alegazio gehienak disponibilitatearen gaiarekin lotuta daudela, lehen disponibilitatea
zati batean ordaindu eta beste zati batean disfrutatu egiten zela eta orain disponibilitate-
aren gaiearen inguruan, Udalhitzi %100ean jarraiki, dena ordaindu egiten dela.

Guzti honen aurrean, Osoko Bilkurak, aho batez, hasierako onarpena eman zitzai-
on lanpostuen baloraketari behin betiko onarpena ematen dio.

VI.- ADMINISTRARI PLAZA BATEN SORKUNTZA.-

Alkateak esaten du udal langilegoan dauden hainbat bajak sortzen duten lan pila-
keta kontutan izanda administrazio orokorreko administrari plaza bat sortzea planteatzen

...///...



...///...

dela. Gaineratzen du ikuspegi orokor batetik begiratuta, orain administrari plaza bat sortu baina bestalde eta hemendik hiru bat urtera administrari laguntzaile lanpostua betetzen duen pertsona jubilatatu egingo denez, lanpostu horri dagokion plaza amortizatu egingo litzakela eta beraz ez dela plantilan hazkunderik emango.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du behar bada gai hau aztertutako batzordeetan ez zirela egongo eta ez zutela gaia ondo ezagutzen baina alkateak emandako argibideekin ados daudela eta beraz alde bozkatuko dutela.

Gaia bozketan jarri eta Osoko Bilkurak, aho batez, honako akordioak hartzen ditu:

- 1.- Administrazio orokorreko plaza berri bat sortzea.
- 2.- Administrazio orokorreko administrari laguntzaile plaza iraungitzeko gisa aitortzea.

VII.- PLANTILLA ORGANIKOA ETA LANPOSTUEN ZERRENDIA.-

Jarraian aurreko puntuan hartutako akordioen ondoriozko aldaketak sartzearen ondorioz plantila organikoa eta lanpostuen zerrendaren aldaketa onartzea planteatzen da.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du gainontzeko dokumentazioarekin batera paperean ez dutela jaso eta jaso nahiko luketela.

Alkateak esaten dio bidaliko zaiola.

Osoko Bilkurak, aho batez, aldatutako plantila organiko eta lanpostuen zerrenda hauek, bere espedienteetan daudenak, onartu egiten ditu.

VIII.- TAXIEN HIRI TARIFAK.-

Gipuzkoako Taxisten Elkarteak 2009 urterako hiri-tarifen proposamena bidali du Udal honetara. Hiri-tarifa hauek Goierriko herri guztietarako berdinak planteatzen dira.

Hiri-tarifen proposamen hau, Udal Osoko Bilkurak onartzea erabakiko balu behintzat, Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Departamendura bidali behar da honek onar dezan, eta Goierriko Udaletako espediente guztiak GOIEKIREn bidez izapidatu nahi dira.

Proposamenarekin batera auto-taxien ustiaketak dituen gastu eta sarreraren azterketa bidali dute baita ere.

Gaur egun indarrean dauden tarifak jarrian azaltzen direnak dira:

HIRI - TARIFA (2008)					
1 TARIFA * (astegun eta egunezkoa)			2 TARIFA ** (gauezko eta jaiegunetakoa)		
Bandera jeistea	Egindako kilometroa	Zai egindako ordua	Bandera jeistea	Egindako kilometroa	Zai egindako ordua

...///...

...///...

2,94	0,9204	17,58	2,94	1,4679	27,63
------	--------	-------	------	--------	-------

Guzti hau kontutan izanda, gaia aztertu ondoren, Udal Osoko Bilkurak, aho batez, honako erabaki hauek hartzen ditu:

1.- 2009 urterako auto-taxi garraio zerbitzuetarako hiri-tarifa hauek onartzea:

HIRI - TARIFA (2009)					
1 TARIFA *			2 TARIFA **		
Bandera jeistea	Egindako kilometroa	Zai egindako ordua	Bandera jeistea	Egindako kilometroa	Zai egindako ordua
3,0841	0,9655	18,4414	3,0841	1,5398	28,9839

* Tarifa hau lanegunetan 07:00etatik 22:00etara aplikatuko da

** Tarifa hau egun orotan 22:00etatik 7:00etara eta igande eta dagokion autonomi eta toki arautegietan finkatutako jaiegunetan 07:00etatik 22:00etara eta halaber larunbatetan aplikatuko da.

2.- GOIEKI ahalmentzea Lazkaoko Udalaren izenean espediente hau Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Departamenduaren aurrean izapidatu dezan.

IX.- 2009KO AURREKONTUA.-

Ondoren 2009 ekitaldiari dagokion aurrekontua aurkezten da bere onarpenera. 2009ko udal aurrekontuak Udala beraren aurrekontua eta Lazkao Lantzen, S.A. udal elkar-tearen aurrekontua hartzen ditu bere barne.

Alkateak onarpenera aurkeztutako aurrekontuaren azalpena egiten du, inbertsioen partidak banan bana azalduz. Esaten du baita ere Aurrekontu exekuziorako udal araeen ez dela iazkoarekiko aldaketarik sartu.

Serna zinegotziak (PSOE) I Kapituluaren guztizkoak iazkoarekiko zein igoera izan duen jakin nahiko lukeela esaten du.

Alkateak erantzuten dio berak igoera zehatza ez daukala, baina aurtengo aurrekontua eta datorren urterako proposatzen dena hartu eta kalkulagailu batekin eragiketa egin besterik ez daukala.

Estensoro zinegotziak, Ogasun batzordearen presidente gisa, erantzuten dio esanez Ogasun batzordean hitzegindakoaren arabera uste duela %6ko igoera dela.

Serna zinegotziak esaten du baita ere alde batetik tasen igoeraren aurka bozkatu zutela, eta tasak aurrekontuaren sarreraren isla zuzena dutela, eta aurrekontuko beste

...///...



...///...

zenbait partidetan ere aurka leudekela baina bestalde inbertsioei dagokionean hauetako askokin ados daudela eta guzti hori kontutan izanda abstenitu egindo direla.

Jendartetik eta alkateak hitza eman ondoren, Igortz Badiolak esaten du inbertsioekin ados badaude ere beraiek ez daudela ados Udalhitzekin ze alor pribatuan langileek ez dutela inondik inora horrelako igoerarik eta beraz aurka daudela.

Guzti honen ondoren, Osoko Bilkurak, aldeko zazpi botu (EAJ, EB-B), aurkako botu bat (PP) eta bost abstentzioz (PSE-EE, Felix Urkola eta Xanet Barreras), honako akordio hauek hartzen ditu:

Lehena.- 2009 urterako udal aurrekontua hasierako izaeraz onartzea. Aurrekontu honek Udalaren beraren aurrekontua eta Lazkao Lantzen, S.A. udal elkartearen aurrekontua hartzen ditu eta beraien sarrera eta gastuen kapituluko laburpenak honako hauek dira:

2009KO UDAL BERAREN AURREKONTUA

SARRERAK:

I	KAPITULUA	ZUZENeko ZERGAK	1.471.500 €
II	KAPITULUA	ZEHARKAKO ZERGAK	180.000 €
III	KAPITULUA	TASAK ETA BESTELAKO ZERGAK	989.500 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	3.350.500 €
V	KAPITULUA	ONDARE-SARRERAK	22.000 €
VII	KAPITULUA	KAPITAL TRANSFERENTZIK	290.000 €
VIII	KAPITULUA	FINANTZA AKTIBOAK	1.000 €
SARRERAK GUZTIRA			6.304.500 €

GASTUAK:

I	KAPITULUA	PERTSONAL GASTUAK	1.103.500 €
II	KAPITULUA	ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZ. GAST.	2.996.500 €
III	KAPITULUA	FINANTZA GASTUAK	90.000 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	417.500 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALAK	1.291.000 €
VII	KAPITULUA	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	245.000 €
VIII	KAPITULUA	FINANTZA AKTIBOAK	1.000 €
IX	KAPITULUA	FINANTZA PASIBOAK	160.000 €
GASTUAK GUZTIRA			6.304.500 €

2009KO LAZKAO LANTZEN, S.A.REN AURREKONTUA

SARRERAK:

VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALEN BESTERENGANAKETA	4.536.604 €
----	-----------	-------------------------------------	-------------

...///...

...///...

IX	KAPITULUA	FINANTZA PASIBOAK	2.876.933 €
		<u>SARRERAK GUZTIRA</u>	<u>7.413.537 €</u>

GASTUAK:

II	KAPITULUA	ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN GAST.	339.304 €
III	KAPITULUA	FINANTZA GASTUAK	102.600 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALAK	6.971.633 €
		<u>GASTUAK GUZTIRA</u>	<u>7.413.537 €</u>

2009KO UDALAREN AURREKONTU KONTSSOLIDATUA

SARRERAK:

I	KAPITULUA	ZUZENeko ZERGAK	1.471.500 €
II	KAPITULUA	ZEHARKAKO ZERGAK	180.000 €
III	KAPITULUA	TASAK ETA BESTELAKO ZERGAK	989.500 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	3.350.500 €
V	KAPITULUA	ONDARE-SARRERAK	22.000 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALEN BESTERENGANATZETIK ETA HIRIGINTZAKO JARDUERETATIK ONDORIOZ-	4.536.604 €
VII	KAPITULUA	TATUTAKO BESTE SARRERA BATZUK	
VIII	KAPITULUA	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	290.000 €
IX	KAPITULUA	FINANTZA AKTIBOAK	1.000 €
		FINANTZA PASIBOAK	2.876.933 €
		<u>SARRERAK GUZTIRA</u>	<u>13.718.037 €</u>

GASTUAK:

I	KAPITULUA	PERTSONAL GASTUAK	1.103.500 €
II	KAPITULUA	ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN GAST.	3.335.804 €
III	KAPITULUA	FINANTZA GASTUAK	192.600 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	417.500 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALAK	8.262.633 €
VII	KAPITULUA	KAPITAL-TRANSFERENTZIAK	245.000 €
VIII	KAPITULUA	FINANTZA AKTIBOAK	1.000 €
IX	KAPITULUA	FINANTZA PASIBOAK	160.000 €
		<u>GASTUAK GUZTIRA</u>	<u>13.718.037 €</u>

Bigarrena.- Aurrekontu hau jendaurrean erakustea hamabost lanegunetako denboraldian, erreklamazio ondorioetarako.

...///...



...///...

Hirugarrena.- Jendaurreko denboraldian erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, aurrekontu hau behin betikotzat onartua joko litzateke espreski hartutako akordio berri baten beharrik gabe.

X.- 2009KO PLANTILLA ORGANIKOA.-

Jarraian, eta aurrekontuari lotutako dokumentu gisa, Osoko Bilkurara aurkezten da bere onarpenerako 2009rako Udal Langileen Plantila Organikoa, bere espedientean aurkitzen dena.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du lehen plantilaren aldaketaren puntuan egin duen esakera bera egiten duela, hau da, paperean pasatzekoarena.

Honen ondoren, Osoko Bilkurak, aho batez, 2009rako Lazkaoko Udalaren plantila organikoa, bere espedientean dagoena, onartu egiten du.

XI.- 2009KO LANPOSTUEN ZERRENDIA.-

Jarraian, eta aurrekontuari lotutako dokumentu gisa, Osoko Bilkurara aurkezten da bere onarpenerako 2009rako Udal Langileen Lanpostuen Zerrendia, bere espedientean aurkitzen dena.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du lehen lanpostuen zerrendaren aldaketaren puntuan egin duen esakera bera egiten duela, hau da, paperean bidaltzekoarena.

Honen ondoren, Osoko Bilkurak, aho batez, 2009rako Lazkaoko Udalaren Lanpostuen Zerrendia, bere espedientean dagoena, onartu egiten du.

XII.- UDALHITZ.-

Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioan, EUDEL, tokiko erakundeek ordezkaria eta sindikatu esanguratsuenen artean lan-hitzarmenak ibilbide luzea dago. Euskadiko Herri eta Foru Administrazioak Langileen Lan Baldintzak Arautzeko Hitzarmenarekin (ARCEPAFE) hasi ziren, eta 2006ko martxoko Udalhitz Akordioekin jarraitu zuten. Horiei esker, lan baldintza aurreratuen marko bat egituratu da eta Euskadiko Lurralde Erakundeek eraginkortasuna, kalitatea eta herritarrei zerbitzua emateko izpiritua asko garatu da.

Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko apirilaren 12ko 7/2007 Legeak, 34. artikuluan, Euskadiko udal-erakunde guztientzako lan-harremanen marko bateratua finkatzea ahalbideratzen du, berariaz aitortzen baitie EUDEL bezalako udalerrien elkar-teei, negoziazio-prozesuetan toki mailako erakundeek ordezkaritza bere gain hartzeko aukera.

Horrela, EUDELek sindikatuen bitartekarietara negoziazioen ardura hartu izana Udalen eta tokiko beste erakundeek izenean, posible egiten da. Beraz, akordioak eta sektoreko hitzarmenak formalizatuko ditu, erakunde bakoitzean berehala ezartzeko, horietara atxikita eta bestelako izapiderik egin gabe. Horrek izugarri sinpletzen du nego-

...///...

...///...

ziazioen dinamika, eta era berean, erakunde guztien arteko lan-baldintzak homogeneizatzen dira. Hori guztia oso onuragarria da bertaratutako alderdi guztientzat.

Irailaren 22an Udalhitz 2008-2010 Akordioak izeneptu dira honakoen artean: EUDEL- Euskadiko Udalen Elkarte, eta ELA-STV, CCOO eta UGT sindikatuak. Akordio horien bidez, euskal toki-erakundeetako funtzionario eta langileen baldintzak arautzen dira eta udaletara igorri dira, dagozkion atxikipenak gauzatu daitezen.

Bestalde, aipatu artikuluen 8. artikuluan aipatzen denez, baldintza jakin batzuk erakunde edota pertsonen eremuan mantendu ahalko dira, baldin eta Akordioa gaindizten badute, eta aurretiaz aitortutakoak badira.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du bere garaian akordioa atzeratzea eskatu zutela eta ez zitzaizela kasurik egin eta orain ere orduan esandakoan berresten direla. Gaineratzen du akordioaren ekonomi kapituluari dagokionean honek proportzioz kanpoko igoera ematen duela eta aurka bozkatuko dutela.

Saldaña zinegotziak (EB-B) esaten du hitzarmen hau urte asko daramatzan hitzarmena dela eta ez dela udal honen hitzarmena baizik eta askozaz ere eremu handiagoa hartzen duela.

Estensoro zinegotziak (EAJ) esaten du Udalhitz, aurretik ARCEPAFE zena, azken 20 urte hauetan jarraitu dela udal honetan eta langileekin hartutako konpromezua dela Udalhitzen onartutakoa onartzearena.

Serna zinegotziak Estensorori erantzunez esaten du baietz hori egia dela baina baita ere egia dela premisa bat zela EUDELen alderdien arteko kontsentsu bat egotearena eta une honetan hori ez dela gertatu.

Aurreko hori guztia kontuan, gaia bozketan jarri eta Osoko Bilkurak, aldeko 9 botu (EAJ, EB-B) eta aurkako 4 botuz (PSE-EE, PP), honako akordioak hartu dira:

Lehena.- Euskal toki-erakundeetako funtzionario eta langileen baldintzak arautzen dituzten Udalhitz 2008-2010 Akordioetara atxikitzea. Akordio horiek 2008ko irailaren 22an izenpetu ziren EUDEL- Euskadiko Udalen Elkartearen eta ELA-STV, CCOO eta UGT sindikatuetako ordezkarien artean.

Bigarrena.- Akordio hauek jakinaraztea EUDELi, Langileen Ordezkaritari, Sindikatu Atalei eta Udalean akreditazioa duten sindikatu guztiei.

XIII.- UDAL GOIKARGUEN ORDAINSARI ETA KALTEAORDAINAK.-

Alkateak esaten du gaur egungo ekonomi egoera nola dagoen ikusita, udal goikarguen ordainsari eta kalteordainei igoerarik ez aplikatzea eta beraz bere horretan uztea planteatzen duela bere alderdiak.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du beraiek ere ados daudela.

...///...



...///...

Jendartetik eta alkateak hitza eman ondoren, Igortz Badiolak beraienak ere bere horretan uzten diren galdetzen du.

Alkateak erantuzten dio baietz, beraienak ere baietz.

Guzti honen ondoren, Osoko Bilkurak, aho batez, udal goi karguen ordainsari eta kalteordainak igoerarik gabe bere horretan uztearen proposamena onartu egiten du.

XIV.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Jendartetik bilkura honetan udal plantilan sortzea onartu den lanpostu berriari buruzko argibideak eskatzen dira eta alkateak aurrena eta Estensoro zinegotziak hurrena, pertsonal batzordeko presidente gisa, eman egiten dituzte.

XV.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak hamar gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



